


Esperientziak



Batzutan zenbait sinonimo ematea erraza da, testuak berak ematen dituelako. Adibidez, higitu (2,2): mugitu. Kasu jakinetan erdarara joenezake. Konturatuko zarenez, testuak hori egiten du batzutan. Biztanle (2,8): habitante, adibidez.

Sinonimoekin egin duguna bera egin liteke antonimoekin ere. Batzutan definizio edo azalpenen bat ematea ere eska genezake. Adibidez: «Azaldu alkatetza (3,6) zer den».

Sinonimoek, antonimoek eta azalpenek sortzen dituzten arazoak konpontzeko hiztegi-liburua erabiltzea komenigarria izango da askotan. Horrela trebatuko dugu ikaslea hiztegia erabiltzen. Eta eztabaida lagungarria sortzeko bidea emango dugu ariketak bukatu ondoren.

Joanba Bergara

«BIDAI AGENTZIEN ARTEKO LEHIA» JOKOA

Maila	: 6. urratsa.
Helburua	: Hizkuntz trebetasunei dagokiena: Mintzamina lantzea. Hizkuntz formei dagokiena: Indikatiboko orainaldia, lehenaldia, Baldintza hipotetikoa, Ahalera.
Materiala	: Diapositibak eta Projektargailua.
Iraupena	: 3 ordu.
Oharra	: Talde bakoitzeko 10 diapositiba gomendatzen dira.

Donostiako bi bidai agentzia lehiari ari dira, ahal den bezerorik gehien berenganatu nahian. Helburu hau lortzearren, agentzia horiek iaz antolaturiko bi bidaiatan partaide izan zirenek bidaien berri emango dute, bakoitzeko abantaila eta oztopoak aditzera emanez.

Klasea hiruzpalau pertsonako lau taldetan banatuko da (*A*, *B*, *C*, eta *D*). *A* eta *B* taldeak bidai agentziak izango dira. *C* eta *D* iaz bidai agentzia hauekin bidai bana egindako bidaiariak. *C* taldeak *A* agentziarekin egin zuen bidai eta *D* taldeak *B* agentziarekin. *C*-koek ekingo diote lehenik beren aurkezpenari, ondoren horien agentziak, *A*-k, jarraituko duenlarik. Gero *D* taldeak azalduko du egindako bidai eta azkenik *B* taldeak aurtengo bere bidai berria aurkeztuko du.

ESKATZEN DIREN BALDINTZAK

a) *C* eta *D* taldeei:

- Bidaia hasieratik bukaerara aurkeztea.
- Aukeratu diren diapositibak deskribatzea.
- Han izandako elkarrizketa bat kontatzea.

b) *A* eta *B* taldeei:

- Bidaia, bidaia berria, zehatz-mehatz aurkeztea.
- Aukeraturako diapositibak deskribatzea.
- Aurkezpena, ahal den neurrian, baldintza eta ahaleraren bidez egitea.

ONDORIOA

Bidai agentzia bat hautatzea debatearen bidez.

Oharra: *A* eta *C*-k, eta *B* eta *D*-ren elkarren arteko kontraesanak kontutan hartuko dira hautaketa egiterakoan.

Rufino Iraola
Koldo Txabari